



Eman euskara elkarri, Korrika 18 martxan da. - "Ez gara Palestinaz ari" ikuskizunarekin hasiera eman zaio herrian Korrika Kulturalari. Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak, Imanol Kamio eta Aitor Atxega musikariekin batera musika, kantuak eta bertsoak baino gehiago uztartzen dituen emanaldia eskaini zuten bart. Gaurkoan egitarauari jarraiki, Korrikaren aurkezpen ekitaldi berezia egingo da Manuel Lekuonan 19:30ean. Ekitaldia Maider Segurola eta Jokin Ayerregarai herritarrek aurkeztuko dute eta bertan izango dira txalaparta doinuak, bertsolaria, Porrotx, Jalgune, Korrikako musikarekin Kukukakoek prestatutako dantza eskainiko dute, omenaldia egingo da eta petoen banaketa eta bakoitzari dagokion ibilbidea aurkeztuko da bideo kliparekin batera. Bukaera borobiltzeko batukadak bere doinuekin festa giroa jarriko du. Martxoaren 21ean Korrika txikia izango da eta gauean "Agur esatea" film dokumentala eskainiko da kultur-etxean. Martxoaren 22an berriz, 19:00etan Korrika 17 eta Euskararen 8. Maratoiaren bideo proiektzioak eta 21:00etan bertso txapelketa egingo da Jalgin. Ondoren musikak hartuko die bertsolariei lekukoa. Martxoaren 23an pasako da herritik Korrika eta goizetik, jokoak, musika, herri bazkaria izango dira, 17:00 inguru Korrika iritsiko da eta herrian zehar egingo du bere ibilbidea. Honen ostean festak ez du etenik izango eta erromeria izango da Okendon eta ondoren kontzertuak.

3 UDALA
Ohiko udalbatzar lasaia izan zen asteartekoa

Toki Administrazioaren Erreforma Proiektua, 197/2006 Doktrina, Parot doktrina deritzona edo Huyck Wangner Perot-eko langileen egoera izan ziren batzarrean. Alderdiek aurkeztutako mozioak onartu ziren eta horien artean Parot doktrinaren aurka Bilduk aurkeztutakoa.

5 GAZTELEKUA
Irekiera festa martxoaren 22an egingo da

Gazteleku berria herriko gazteen bilgunea izatea nahi du udaleko Gazteria sailak eta horretarako erabiltzaileen iritzia jaso nahi ditu. Datorren ostiralerako irekiera festa antolatu da eta musika eta hainbat ekintza tarteko, espazioaren inguruko azalpenak emango dira ere.



Astlehenean martxoaren 18an, ez da Txintxarri-rik argitaratuko. Hurrengo zenbakia martxoaren 22a, ostirala KORRIKA-ko berezia da.

Izena emateko epea: Martxoaren 21a

SUKALDARI... Patatari!
2005 - 2010 bitartean jaiotakoentzat
HH2-LH2koentzat
10:00etatik 13:30ak arte

9:00etatik 10:00ak arte
Goizxoko zerbitzua!

amaraun ludoteka

Ttakun Kultur Elkartea (Geltoki 4, behea) // 943 371448 // aisia@ttakun.com

Neure kabuz



Jone Miren Hernandez

Modako koloreak

Udaberriaren atarian izanda, erakusleihen koloreak nabarmen aldatzen hasi dira. Atzean geratzen ari dira neguko tonuak: beltzak, grisak, marroi zein urdin ilunak... Koloreek urtaro berri bat igartzen dute. Halere, azken boladan badira beste kolore batzuk gurean modan jarri direnak, udaberriaren nahiz neguan. Kaleetan, ikastetxeetan, hainbat lantokitan... horia, urdina eta berde iluna paisaiaren parte bilakatu dira jada. Egun, ohiko zaborrak apainduta agertzen dira kolore ezberdineko poltsekin. Kolore bakoitzak esanahi bat du. Ezaguna da: urdinean papera, horian -nagusiki- plastikoa eta berdean ilunean gainontzekoa.

Ez dakigu geratzeko etorri diren edo birziklapenaren garapena ordezkatuko dituen oraingo ontziak eta koloreak beste batzuegatik. Denborak esango digu. Azken finean, birziklapena gizakiaren historian zehar garatu den praktika bat da. Eta pentsa daiteke gero eta protagonismo handiagoa izango duela gure bizitzan. Birziklapenak bizi iraupenarekin, behararekin, aurrezteko nahiarekin du, besteak beste, lotura. Birziklatzen da zaharra berriz margotzen denean, puskatutakoa konpontzen denean, behar ez duguna oparitzen dugunean, eskura ditugun erabilitako osagaiekin zerbait sortzen dugunean... Praktika guzti hauetan atzean positibotzat jo izan ditugun balioak egongo lirarteke. Baina denborarekin, balio horiek bigarren maila batean uzten joan gara eta beste batzuei eman diegu lehentasuna: distira egiteari, berria izateari, modernoa izateari, modan egoteari, kontsumitu eta erosteari... Bai, baloreaz ari gara, ez bakarrik koloreen kontuaz.

Zorion agurrak



Garazi

Zorionak Garazitxu! Etxeko txikitinak 10 dagoeneko! Oso ondo ospatu eta mila muxu.



Sebas

ZORIONAK!! Zure kuadrilaren partetik, Katxarro.



Sara

Zorionak zure 16. urtebetetzean familiaren partetik.



Julian

Zorionak etxeko partetik.



Eneritz

Zorionak bihurtu ondo pasa zure 6. urtebetetzean. Muxuak aitatxo, amatxo eta Nerearen partetik.



Silvia

Zorionak Chiscaren partetik, asko maite zaitut muxu handi bat eta oso ondo pasa zure egunean.



Eñaut

Zorionak Pirata!!! bederatziki muxu Eneritz eta familiaren partetik.



Oler

Zorionak! Jadanik sei urte zoragarri zure ondoan, asko maite zaitugu! Aitatxo, amatxo eta Unax.



Julen

Zorionak zure 11. urtebetetzean familia osoaren partetik.



Unal

Zorionak zure 6. urtebetetzean, Yeray eta gurasoen partetik! Muxu handi bana!



Almar

Zorionak zure 4. urtebetetzean guraso eta aitona amonen artetik.



Ivan

Zorionak Ivantxo! Ondo pasa eta beldarriki prestatu!! Guraso eta zure arreba Naiararen partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Jon Ander Calzon Montero, martxoaren 11an.
- Nadia Caballero Godoy, martxoaren 4an.
- Naiara Vargas Ponce, martxoaren 2an.

Heriotzak

- Amparo Bernal Sanchez, martxoaren 11, 70 urte zituela.
- Pepita Sagardia Materola, martxoaren 10ean, 92 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 15 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 16 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 17 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 18 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Astearte, 19 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 20 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 21 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero Aldabe, Perkaiztegi 8 Hernani, Tel.: 943 336 022	

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
ERTzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Azoka txikia

Eskaintza Inmobiliarioak

- Logela Alokatzan da Zubietan. Etxetik bista ederra dago. Harremanetarako zenbakia, 655 744 039.
- Logela alokatzen da Lasarte-Oriako pisu batean. 250 euro hilabetero. 600 612 085.
- Garaje marra alokatzen da Hipodromo Etorbidean. 648 614 769
- Garaje itxia alokairuan Geltoki kalean. Kokaleku ona. Harremanetarako zenbakia, 615 720 367.

Lan-eskariak

- Emakumea eskaintzen da interna moduan

edo orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak, zein haurrek zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako zenbakia, 666 708 963

- Laguntza klaseak ematen dira Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa. Talde txikiak, esperientzia handia, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako zenbakia, 943 376 888 / 646 645 445 (Maria)
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketa, platerak garbitu edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako zenbakia, 619 803 199.

- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. Harremanetarako zenbakia, 943 404 015/606 661 048.

Bestelakoak

- Ingelesko klaseak ematen ditut maila eta adin guztietan. Harremanetarako zenbakia, 693 601 222.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Alezko zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Jon Altuna I, Maider Azurmendi, Jon Altuna E
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Armuti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtate, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALBATZARRA

Eztabaida gutxiko Udalbatzarra

Goiegi Gorako hotelak lau soilairu izango ditu, PSE-EE eta Bildu alderdiek aurkeztutako mozioak ere onartu ziren

Arlo ezberdinetako gaiak izan ziren eztabaldagai. Besteak beste, Toki Administrazioaren Erreforma Proiektua, 197/2006 Doktrina edo Huyck Wangner Perot-eko langileen egoera. Eta aurkeztutako mozioak onartu zituen Udalbatzarrak.



Eztabaida gutxi izan zen martxoko ohiko udalbatzarrean eta aurkeztutako hiru mozioak aurrera aterata ziren.

Martxoko ohiko udalbatzarra izan zen astearte arratsaldean eta gai ugari aterata ziren aurrera izan ere, PSE-EEko Nerea Artamendi ez zen batzarrean izan.

Lehenik 2012 ekitaldian eta 2013ko ekitaldian kredituak aldatzeko gaur arte bideratu diren dosierren berri eman zen. Hirigintza alorrean, behin-betiko onespina eman zioten "A-38 Goiegi Gora HIEan Hiri-Plangintzako Arau Subsidiarioak puntualki aldatzeko" dokumentuari. Honela Goiegi Gora eremuan egingo den hotelaren proiektuak aldatzeko jasango ditu, hala nola, soilairuen kopurua, lau izango ditu.

Talde sozialistak proiektu berri honen aurka bozkatu zuten, herrian lanpostuak

beharrezkoak direla eta enpresek in egindako akordioa arriskuan jartzen delako.

Jarraian, udal talde sozialistak aurkezturiko "Toki Administrazioaren Erreforma Proiektua"-ri buruzkoa mozioa onartu zen. PPKo zinegotzia izan zen honen aurka egin zuen bakarra.

PSE-EEK azaldu legez, erreforma honek eskumenak herritarrengandik urrutzea ekarriko du, Erkidegoen baitan izango baitira erabakiak.

EAJ eta Bilduk erreforma honen atzean defizita jaistea ez diren beste arrazoi batzuk daudela salatu zuten. Gainera, udalei autonomia kendu eta eskumenak murrizteko balioko duela aipatu zuten.

Ondoren, "197/2006 Dok-

trina: Zigor gehigarriaren ankerkeria" edo bizitza osoko kondeneri buruzko mozioa azaldu zuen Bilduk.

Aurrera aterata zen eta besteak beste, Strasburgoko epaitegiak martxoaren 20ean ematen duen epaia aintzat hartzea eta 197/2006 Doktrina eskubideen aurkako dela egotzen bada, doktrina bertan behera utzi eta hau aplikatu zaien euskal presoak askatzeko eskatuko du udalak. Era berean, euskal presoek ezarritzen zaien salbuespen legeria bertan behera uzteko eskaera egingo du.

Azkenik eta galdera eta erreguen txandara iritsi aurretik, Huyck Wangner-Perot-eko langileen aldeko mozioa onartu zuen Udalbatzarrak.

Zizurkilgo enpresak ERE-a aurkeztu zuen 75 langile kaleratzeko, 81 langiletik. Elkarriketetan izan dira langile zein enpresako zuzendaritzako ordezkariak eta azken egunetan prentsak jaso duenez, ERE-a bertan behera uztea erabaki da eta biltzen jarraitzen dute egoerari irtenbide bat eman nahian.

Galdera eta eskaerak

Azkenik galderen txandan izan zen, PSE-EEK eta PPK hitza hartu zuten.

PSE-EEko bozeramaileak, Jesus Zaballosek besteak beste, Lasarte-Oria eta Donostia arteko bidegorrari buruz edo NASIPA enpresaren egoeraz eta herrian dituen proiektuetaz galdetu zuen eta eskaera bat

egin zion udal gobernari, kontratazio pliegoetan subrogazioa aurrekustea.

Nerea Sanchez Hirigintza saileko arduradunak bidegorrariaren harira, bilerak egon direla azaldu zuen. Guztien gustuko den proiektua adostu eta hau aurten garatu eta hurrengo urtean egin ahalko litzatekeela aipatu zuen.

NASIPARI buruz, enpresak Udalarekin hitz egin eta proiektuak aurrera eramateko asmoa duela jakin arazi zuen Hirigintzako buruak.

PP-ko Vanesa Velezek liburutegia Udaletxe berria eramateko ideari buruz galdetu zuen eta Udalak hainbat gaitan duen gardentasun eza salatu zuen, hala nola, Udal Gobernuak egin dituen abokatuen kontratazioetan.

Alkateak liburutegiko lekualdaketa ideia bat dela eta aztertzen ari direla adierazi zuen.

Herritarren txanda

Ohiko udalbatzarretan herritarrek ere hitz egiteko aukera izan zuten. Honetan azpimarragarria izan zen Beñat Iriondok gatazka politikoari buruz hitz egiteko gunea irekitzeko proposamena. "Elkar ulertzeko eta berritua gerta ez dadin," adierazi zuen.

Gizarte Zerbitzuak gurasoekin eta irakasleekin lanean

Lasarte-Oriako Udala eta Gizarte Zerbitzuak zehazki orain dela hilabete batzuk herrian sortu zen alarma soziala ikusirik, udalerriko gurasoei zuzendutako talde esperientzia berri bat diseinatu du.

"Gertaera honek egoera traumatikoak ekarri zituen eta guraso asko beraien seme alabekin gaia tratatzeko ezintasunean topatu ziren," azaldu dute Gizarte Zerbitzuetako arduradunak eta ikastetxeetako guraso elkartearen bitartez eskaintako tailerra dela jakitera eman dute.

Lanabesa

Ikastaroak gurasoek egunerokotasunean erabili ditzaketen zehazki lanabesak sendotzea eta gurasotasun positiboarekin erlazionatutako gaiak lantzea du helburua. Guraso eta seme alaben erlazioetan sakondu, hauen beharrik



Gizarte Zerbitzuetako hezitzaileak gurasoekin eta ikastetxeekin ari dira lanean.

identifikatu eta ondorioz jokatzeko tresnak eskainiko zaizkie.

Horretarako, egoera pertsonalekin lan egingo da gurasoek dituzten kezka eta ardurak, bizi dituzten esperientziak azaldu eta aztertuko dira tailerrak dituen sei saioetan.

Bi talde martxan

Guraso elkarteek jasotako eskaerarekin, bi talde sortu direla jakitera eman du Udalak, bata gaztelaraz eta bestea euskaraz.

Taldeak dagoeneko martxan dira eta hilabete honetan zehar Villa Mirentxuko hitzaldi aretoan bilduko dira.

Irakasleekin lanean

Bestalde, herriko ikastetxeen zuzendutako hitzaldi batzuk ere burutzen ari dira Villa Mirentxun.

Saio hauen helburua ikasketen zentruen eta Gizarte Zerbitzuen artean lan sare eraginkor bat sortzea da.

Sesio hauetan, Haur Babes Sistemak azaldu eta irakasleei, laguntza behar duten haur eta familiak detektatzeko tresnak ezagutarazten zaizkie.

Lantzen diren beste eduki batzuk legearen arabera erantzunkizuna, haurren beharren klasifikazioa edo identifikatutako behar baten notifikazioa gizarte zerbitzuetara nola bideratzea dira, esate baterako.

Nahiz eta lehendabiziko hitzaldi hauek ikasketen zentruetara zuzenduta egon, etorkizunean beste formakuntza batzuk egingo dira gizarte agente ezberdinekin.

SORTU

Barrikotea Xirimirin gaur

Hilabeteetan oinarri ideologikoen, ildo politikoen eta antolaketa inguruko eztabaida, hausnarketa eta lanketa handiaren ondoren, Sortu erakunde berria eratu da.

Lasarte-Orian ere lankeeta saioak izan dira. Horregatik, barrikotea antolatuta da gaur, ostirala, 21:00etatik aurrera Xirimiri elkartearen. Txartelak Ilargi, Artizar eta Gure etxea tabernetan daude eskuragarri.

ABARASKA

Ukendu ikastaroa

Ttakun Kultur elkarteak aloe ukendua egiteko ikastaroa antolatuta du martxoaren 21ean, osteguna, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara HHI-EPA-n.

Izena ematea Ttakuneko bulegoan egingo da.

Amaia Gonzalez Europako onenen artean

► Hiru sari ekarri ditu herriko dantzariak Torremolinosen ospatutako Europako txapelketatik

Amaia Gonzalez Caballero eta bere bikotea Jose Mari Orbegozo Europako txapelketatik hiru sari ekarri dituzte aurtengoa. Pasodoble eta Dantza Konbinatuan bigarren izan dira eta tangoan hirugarren postua eskuratu dute. Dantzaria pozik dago emaitzarekin eta lehatzen jarraitzeko asmoa azaldu du. Belaunaldi berriak indartsu datoz eta hauen teknikaren aurrean beteranoek esperientzia dute tresna ballagarri txapelketetan.

Maidar AZURMENDI

Bost urte jarraian izan dira Amaiak bere bikotearekin batera, lehenengo sariak ekarri dituztela Europako txapelketatik baina bere hitzetan "urteik urtera zailagoa da lehenengo postuan mantentzea".

Bikote gazteagoak sartzen dira lehian eta hauen maila altua da "urte asko egin ditugu lehenengo sariak eskuratzeko eta belaunaldi berriak indartsu datoz".

Aurten lehenengo aldiz euren kategorian lehiatu den bikote kataluniarrak pilatu ditu lehenengo sari gehienak

"30 urteko bikotea indartsu sartu da, bientzat lehenengo urtea zen gure mailan 30-50 urte artekoan, eta primeran ibili dira". Amaia hala ere, oso pozik dago lortutako emaitzekin izan ere, podiumera hiru aldiz igo dira 60 bikoteren arteko norgehiagokan.

Lehiaketan mundua ez da erraza, lana, familia asko dira uztartu beharrekoak eta aurtengo emaitzekin pozik, hurrengo urtera begira Europako txapelketara behintzat joateko asmoa dute. "Erkidegoetako txapelketak hilero izaten dira baina guretzako zaila da joatea, iaz Kantabria-

ra joan ginen eta irabazi, aurtun bertara erakustaldi bat eskaintzera joango gara baina txapeldun izan ginenez ezin dugu lehiatu, agian Palentzia edo Badajozera joango gara baina ikusiko da".

2012an Europako txapeldun izateagatik Frantzia erakustaldi bat egitera gonbidatu zituzten eta bikotearentzat "oso esperientzia polita izan zen".

Lehia gogorra

Pasodoblean lortutako hirugarren saria da Amaia gelditu zaion arantza, "oso onak gara pasodoblean, urteetan sari gehien dantza honi esker pilatu dugu eta gehiago merezi genuela uste dut" hala ere, epaileen lana erraza ez dela dio herriarrak. "Aldi berean, tangoan bigarren izatea ezustekoa izan zen biontzat, ez genuen espero".

Lehiaketan giro ona da nagusi dantzarien artean Amaia erasotzen eta horrek asko laguntzen du aste betearen egunero lehiatzea derrigorrezko duen txapelketan. "Oso gogorra da egunero bi edo hiru aldiz dantzatu behar izatea, gainera egunero zehar egiten dira kanporaketak eta sailkatuek gauean lehiatu behar dute".

Gomendioak ere ematen dizkio bate besteari eta epaileek baloratuko dutenaz "esperientziari eskerrak" dagoeneko badakigu kasu askotan.

Harrobi falta

Dantzak hemen ez du jende asko erakartzen baina beste erkidego batzuetan txapelketa



Amaia Gonzalez eta Jose Mari Orbegozo harro lortutako lehenengo sariarekin.

zirkuituan bikote asko mugitzen dela dio dantzariak. "Hemen edo Andaluzian aldea izugarria da". Pena handia du harrobia ez dagoelako "bakar batzuk ibiltzen gara eta gehienak emakumeak". Gainera oholta gainera igotzea kostatzen zaigula iruditzen zaio "agian lotsatigoak gara hemen baina emakumeen artean hori ere badago, eskolara etortzen dira baina erakustaldiak egiteko garaian ez dira eroso sentitzen".

Gizonezkoak dantza munda erakartzea "hemen, Eskal Herrian, ezinezkoa dela dirudi". Kulturala dela ondorioztatzen du Amaiak, "euskal dantzara agian bai baina salsa, pasodoblea, tangoa ez

dute nahi, beldurra edo ematen duela dirudi".

Europako txapelketan hurrek ere parte hartzen dute eta hemengo bikoterik ez dela ikusten azaltzen da. "Dantza egitea oso polita da eta pena ematen dit hemengo interes ezak".

Amaiak eta bere dantza bikoteak urteak daramatate elkarrekin dantzatzeko, adin diferentzia handia dute baina bikotez aldatzea pentsaezina da "hasteko ez dagoelako aukera errealik". Gainera dantza bikote asko bikote sentimental ere badira baina hau gertatzen ez denean, "zaila da bikoteak ulertzea beste gizon batekin pasatzen dituzun entsegu orduak, bidaiek... uste baino zailagoa da dantzaren mundua".



Amaia Gonzalez eta bere dantza bikotea Jose Mari Orbegozo bigarren sariarekin

Gero Axular dantza taldearen "Argizaiola" ikuskizuna larunbatean

Gero Axular dantza taldeak bere bosgarren lana aurkeztuko du bihar, larunbata 19:00etan Manuel Lekuonan.

Argizaiola lana da estreinakoz taularatu dutena eta 100 minutuko iraupena izango duen ikuskizunak XIX. eta XX. mendean kokatuko ditu bertarututakoak.

Lau eszena nagusitan banatuta, hogeitabi dantza eskainiko dituzte.

Dantza taldeak aurretik Sasi Artean, Lamien Basoa, Talaia eta Xereta ikuskizunak erakutsi ditu Euskal Herriko hainbat antzokitan baita Europan zehar parte hartutako hainbat dantza jaialdietan.

Oraingoan adin ezberdinetako 60 pertsonen parte hartzen dute ikuskizunean dantzari, musikari eta bestelako pertsonaien artean. Musika zuzenean izango da oholtzan dantzariarekin batera.

Gerra garaia

XIX. eta XX. mende artean kokatzen den ikuskizuna dakar oraingoan Gero Axular dantza taldeak, "Euskal Herrian, gerra eta istilu zibilak tartean direla, mendian eta herrian".

Dantza ikuskizuneko pertsonaia nagusia ikazkinaren semea da. Txikitan basora joaten zen aitarekin eta honek egindako txondorean ezkuta-

tzen zen eta haren barruan jartzen zituen bere altxorrak: bidean aurkitutako txorimalo bat eta amonak emandako argizaiola. Urteak aurrera, herrian apirilaren 27an korrika atera behar izan zuten merkatutik, zerutik tximistak erori ziren eta sutan esnatu zen herria. Basora joan zen txikitako txondorean aterpetzera, baina hura ere erreta zegoen txorimaloaren eskutian argizaiola piztuta azaldu zen.

Bere sorreratik 2004. urtean Juan Luis Unzurrunzaga gidaritzapean lan egiten du Donostiako taldeak. Sarre-rak kutxanetan daude eskuragarri 11 eurotan.



Talaia ikuskizuna herrian ikusteko aukera izan zen 2009an.

Gaztekuaren festa martxoaren 22an

► *Irekiera ofiziala izango da eta herriko gazte guztiak honetan parte hartzera deitu dituzte*

Taxio Arrizabalaga zinegotziak datorren ostiralean martxoaren 22an Gaztekuaren egingo den festa aurkeztu zuen teknikariek batera egindako agerraldian. Irekiera ofiziala emango zaio ekitaldi honekin herriko gazteentzako gune berriari eta udal ordezkariak herriko gazte guztiak honetan parte hartzera animatu ditu. Festa 17:00etan hasiko da eta bertan malabare tailerra eta "Psicoacustics"-en kontzertua izango dira besteak beste.

Maidier AZURMENDI

Gaztekuak bere lehenengo urratsak eman ditu eta atzo Taxio Arrizabalaga Gazteria zinegotziak, Xabier Goitia eta Rosa Illarramendi teknikariek batera agerraldia egin zuen Gaztekuaren irekiera ofizialeko festa aurkezteko.

Festa hau datorren ostiralean martxoaren 22an izango da 17:00etatik 20:00etara.

Honetan espazio guztiak ezagutzeko aukera izango dute gazteek eta besteak beste, kontzertua bat egongo da "Psicoacustics" taldearen esku, malabare tailerra eta hainbat joko eta dinamikekin batera. Festa honen baitan zinegotziak azpimarratu due-

nez, gazteei espazio honen ideia nagusiak azaldu eta honetan egin nahi dutenaren inguruan galdetu nahi zaie.

Erabilera anitzak

Gazteria departamenduaren asmoa gune zabal eta anitz bat osatzea dela azaldu du Arrizabalagak eta horretarako "parte-hartze bidez gauzatu nahi da bertaratzen diren gazteek proiektu hau moldatzeko aukera izan dezaten. Guztiak, hasieratik bere sentitu dezaten, etorkizuneko Gaztekuaren denen artean eraikiz eta guztion arteko sorkuntza lanak harro egongo garen proiektua borobiltzeko".

Aste Santutik bueltan jarriko da martxan parte hartze prozesua, gazteek espazio



Xabier Goitia eta Rosa Illarramendi teknikariak Taxio Arrizabalaga zinegotziarekin batera aurkezpenean.

bakoitzari eman nahi dioten erabilera zein den ezagutzeko, "Zer espero duzu Gaztekuagandik? izango da eslogan nagusia, eta espektatibak jasotzea da helburua".

Dagoeneko gazteei galdetuta bat pasa zitzaizela azaldu dute udal ordezkariak. Honekin gazteek nahi zituzten ikastaroak, ekintzak zeintzuk ziren jakin nahi zen eta "horietatik atera dugu adibidez apirillean programatu den ikastaroa,

hala ere, espazioak ezagututa zertarako erabili nahi duten jakin eta eurekin Gaztekuaren proiektua, eskaintza, gorputzu nahi dugu".

Sare sozioletan

Udal ordezkariak festan parte hartzera gonbidatu ditu gazteak eta hemendik aurrera sare sozialen bidez informazio gehiago zabalduko dutela adierazi du. Gaztekuak bere perfilak zabaldu ditu Facebo-

ok-en Lasarte-Oriako Gaztekuak eta Twitterren @LGazte.

Hauen bidez datorren asteko festaren inguruko informazioa argitaratzen joango dira datozen egunetan eta primizia moduan Gaztekuaren gela ezberdinen irudiak ere zintzilikatuko dituzte.

Gazteekin harreman zuzena izateko baliatuko dituzte sare sozialak aurrerantzean programazioaren berri emateko besteak beste.

Aniztasunaren astea antolatu du Burunzpe Guraso elkarteak

Burunzpe Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko guraso elkarteak asteburu honetan lehenengo aniztasunaren astea antolatu du.

Guraso elkarteak azaldu duenez, eskolan eta herrian ematen den kultura aniztasunaren errealtatea eta honek duen garrantzia islatzea du helburu aste honetarako.

Ekintzak

Aniztasunaren asteo ekimenak gaur eta bihar izango dira. Honela, gaur, 16:45etik aurrera, guraso eta ikasleentzako jarduerak izango dira Sasoetako gimnasioan.

Hennarekin tatuajeak, munduko jolasak (sokatira, isatsa astoari jartzea...), eskulana, makilajea, munduko musikak eta karaokea... egingo dira kultura anitzak ezagutu ahal izateko.

Bihar, larunbata, goizeko 10:00etan, gurasoen arteko futbol partida izango da udal kiroldegian. Ostean, 14:00ak aldera, gurasoentzat herri bazkaria antolatu du Extremeña Elkarteak.

Munduko errezetak

Ikastetxean, beste ekintzen artean, "Munduko Errezetak" bilduma osatuko da.

Guraso elkartekok azaldu dutenez, ikasle bakoitzak errezeta bat egiteko fitxa bat eramango du etxera eta gurasoen laguntzarekin hauen herrialde, erkidego edo lurraldeko errezeta bat idatziko du.

Errezeta guztiak jaso ondoren bilduma bat osatuko da eta ikusi nahi duenak haur eskolako liburuetan egingo dela jakitera eman dute.

Parte hartzea

Zumaburu-Sasoetako Guraso elkarteak eta ikastetxeak antolatu diren jardueratan jatorri ezberdineko gurasoak parte hartzera animatzen dituzte.



Herrian dagoen kultura aniztasuna erakutsi nahi du Burunzpe guraso elkarteak.

Honela, antolatutako ekintzetan parte hartzeko prestatu dauden gurasoek 943 361

226 zenbakira deitu edo aniztasuna@burunzpe.net helbidera mezu bat bidal dezakete.



ALBI
altzariak

Garcia Goldaraz, 1 blokea
Hernani
943 55 71 54

Esposizio aldaketa dela eta

AUKERA PAREGABEA

3 Saloi Logela Haur-gela

LIKIDAZIOAN



Etorri galdetzeraz

LABURRAK.-

Squash txapelketarako izena ematea

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak hogeita bosgarren Squash txapelketa soziala antolatu du. Txapelketa 2013ko apirilaren 2an hasiko da eta ekaina arte luzatuko da.

Parte hartzeko asmoa dutenek martxoaren 22a arteko epea dute Kiroldegiko kafetegian izena emateko. Parte hartzeko gutxieneko adina 14 urtekoa da. Inskripzioaren prezioa Buruntaldeko bazkideentzat 10 eurokoa da.

Curiel Espainiako txapeldun borrokan eta Martinez hirugarren

Hondarribiko Ama Guadalupekoa taldean entrenatzen den Amaia Curiel lasartearrak urrezko domina lortu zuen larunbatean Albalote herrian egin zen junior eta eskolarteko Espainiako Borroka Txapelketan.

Amaiak hiru borroka irabazi behar izan zituen urrezko domina lortzeko.

Bestalde lehengo igandean, martxoaren 10ean, junior mailako Espainiako txapelketako iparraldeko sailkapen saioa izan zen, Iruñean. Bertan LOKEko Esteban Martinezen hirugarren postua lortu zuen. Tamalez postu honek ez dio Estatuko txapelketako finalean egoteko txartelik ematen.

Era berean, taldeko gaztetxoak martxoaren 2an Durango Uria Sarian izan ziren eta ederki ibili ziren borrokan.

Manu Revuelta, Yeray Mendibe, Ander Garrido eta Ibai Aranguren alebinak bakoitza bere mailan irabazte izan ziren. Garikoitz Mena, Jesus Curiek, Sergio Faro, Eric Bermejo, Unax eta Omar Jassanek bigarren postua eskuratu zuten. Infantil mailan, Jorge Revuelta hirugarren izan zen.

Gimnastak ederki eskolarteko txapelketan

LOKEko gimnastek txapelketa denboraldia hasi dute dagoeneko. Eguraldi eta arazo teknikoak zirela eta, martxoaren 2an, Eskolarteko b mailako txapelketako lehenengo jardunaldia izan zen Hernanin. Honetan Lasarte-Oriako taldeko infantil taldeak parte hartu zuen. 5 uztairerik lan egin eta bigarren sailkatu zen.

Era berean, lehengo asteburuan, martxoaren 10ean, taldeko txikiak hasi ziren lehia. Udaberriko txapelketako lehen saioan Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri ikastetxeetako alebin taldeek parte hartu zuten. Sasoetak 15. postuan amaitu zuen lehia eta Landaberrik 22. postuan.

ATLETISMOA.-

Bustok errekorra egin zuen

Igandean XVI. Euskal Krosa-Eneko Castro Oroimenezkoa

LOKEko gazteak Espainiako jubenil eta kadete mailako Espainiako txapelketetan izan dira lehian. Itoitz Rodriguez gaztea finalean izan zen lehian. Eneritz Bustok, berriz, Euskadiko eta Gipuzkoako kadete mailako pentatlon errekorra gainditu zuen berriro ere.

Nerea EIZAGIRRE

Indartsu dabilta LOKEko atleta gazteak. Horren erakusle Eneritz Busto kadetea dugu. Lehengo asteburuan, martxoaren 9 eta 10ean, Valentzian izan zen kadete mailako txapelketan parte hartu zuen gazteak pentatlon proban eta domina lortu ez arren, Euskadi eta Gipuzkoako errekorra gainditu zituen berriro ere.

Eneritz bikain lehiatu zen. 60 metro hesi-lasterketan, 9,40sg. egin zuen; altueran, 1,65 m.; pisu jaurtiketan; 9,15



Eneritz eta Itoitz izan dira kadete eta jubenil mailako Estatuko txapelketetako finaletan.

m.; Luzera jauzian 4, 29m. eta 600 m. lasterketan, 1m. 50,82sg.

Era honetara, txapelketa 5. postuan amaitu zuen, 3.129 punturekin eta urte hasieran berak ezarritako Euskadi eta Gipuzkoako errekorra hautsi zuen.

Itoitz finalean

Bestalde, martxoaren 2 eta 3an, Jubenil mailako Espainiako txapelketa izan zen Antequeran.

Bertan, LOKEko Itoitz Rodriguez gaztea 400 metroko finalean izan zen eta 5. postuan amaitu zuen lasterketa.

Maria Eugi, Yeray Veroniz eta Ane Galardi ere izan ziren

txapelketan. Mariak 200 m. lasterketan parte hartu zuen; Yerayk 60 m. lasterketan eta Anek luzera jauzian. Ez zuten zorte onik izan.

Euskal Krosa

Bestalde, igandean, Landaberri ikastolako Guraso elkar-teak antolatuta XVI. Euskal Krosa-Eneko Castro Oroimenezkoa antolatu da Atsobakareko parkean.

Goizeko 11:00etatik aurrera, maila ezberdinetako gazte eta haurrek lasterka egingo dute. Azken urteetan bezala, gurasoek ere parte hartzeko aukera izango dute gazteen lasterketa guztiak amaitzerakoan.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 16

Berio, Donostia, 09:00etan

Antigua Luberrri-Ostadar

I. Kadetea, kopa

Michelin, 10:00etan

Texas Lasartearra-Amara Berri

I. Kadetea, kopa

Michelin, 11:30ean

Ostadar-Orioko

Jubenilen Ohorezko maila

Michelin, 13:30ean

Ostadar-Amara Berri

Emakumezkoen Liga

Michelin, 15:30ean

Texas Lasartearra-Ontzerri

I. Erregionala, kopa

Trintxer, Trintxerpen, 15:30ean

Sanpedrotarra-Ostadar

I. Erregionala, igoera

Arizkorreta, Idiazabal, 17:00ean

Idiazabal-Ostadar. I. Jubenila, kopa

Michelin, 17:30ean

Ostadar-Lagun Onak

Erregional Ohorezko maila

Igandea 17

Michelin, 10:00etan

Ostadar-Orioko Alebina, kopa

Michelin, 11:15ean

Ostadar-Amara Berri

I. Infantil, kopa

Rezola, Añorga, 13:00etan

Añorga-Ostadar

Infantilen Ohorezko maila, kopa

Puio, Donostia, 15:00etan

Vasconia-Ostadar. Infantil Txiki, kopa

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 15

Eskolapioak, Tolosa, 21:45ean

Hirukide-ISU Leihoko Gipuzkoako Liga

Larunbata 16

Abusu Kiroldegia, Bibo, 18:30ean

Gora-Aldaz H.K. Nazional B maila

SASKIBALOA

Larunbata 16

Musakola kiroldegia, Arrasate, 10:30ean

LEK Eskoriatza-Landaberri

Infantil txiki neska, partehartzea

La Salle ikastetxea, Zarautz, 12:30ean

Zast98-Ostadar SKT

Kadete neska, partehartzea

PILOTA

Ostirala 15

Bergara, 19:15ean

Bergara-Intza Eskuz binaka, I. Jubenila

5. eta 6. postua jokoan

Igandea 17

Kirol guneko pilotalekuan, 10:00etan

Intza-Bergara Eskuz binaka, II. Kadetea

9. eta 10. postua jokoan

Kirol guneko pilotalekuan, 10:00etan

Intza-Eibar Eskuz binaka, II. Jubenila

Finalerdia

IGERIKETA

Larunbata 16

Kiroldegia, 16:00etan

Buruntzaldea IKT-ko taldeko

benjamin eta alebinek Kirol

Zehaztasun Ligako 4. jardunaldia

dute.

JUDO

Igandea 17

Hernani, 10:30ean

LOKEko infantil mailako Jorge

Revuelta, Mikel Lasa, Talib Vergara

eta Henry Wergner gaztetxoek

Gipuzkoako txapelketa dute.

DUATLOIA

Larunbata 16

Oñati, 15:30ean

Herriko hainbat atletek Oñatiko

Duatloia proban parte hartuko dute.

ATLETISMOA

Larunbata 16

Antonio Elorza belodromoa, Donostia,

10:30ean

Lasarte BHI, Landaberri eta

Sasoeta-Zumaburu-ko gazteek

eskolarteko txapelketako

jardunaldia dute.

Beasain, 16:00etan

Herriko hainbat atletek Arriarango

II Mendi lasterketan parte hartuko

dute.

Igandea 17

Atsobakar parkea, 11:00etan

Landaberri ikastolako eta herriko

haurrek XVI. Eneko Castro

Oroimenezkoan parte hartuko dute.

ERRUGBIA

Larunbata 16

Ayete, Donostia, 11:00etan

Beltzak Ostadar Zarautz-Atl. San

Sebastian Infantil federatuak

Igandea 17

Michelin, 09:00etan

Beltzak Ostadar Jalai errugbi

eskolako eskolarteko infantil, alebin

eta benjamin mailako gaztetxoek

entrenamendua izango dute.

Igorre, 12:00etan

Arratiko-Beltzak Ostadar Gure

Etxea Euskal Liga, kadetea

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 16

Azpeitia, 16:00etan

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta

herriko juniorrak XXXII. Loiola

Saria proban izango dira.

Usurbil, 16:30ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako

infantilek Usurbilgo Saria proban

parte hartuko dute.

Igandea 17

Biyak Bat elkartea, 09:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturistek

Ordizira egingo dute irteera.

Eibar, 10:30ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta

herriko kadeteak XXXIV Abascal

Oroimenezkoan parte hartuko dute.

BOLA-JOKOA

Igandea 17

Ereñozun, 10:00etan eta 16:30ean

Ostadar SKT-ko bola-joko taldeak

Lehendakari txapelketako saioa

jokatuko dute.

Agenda

Ostirala 15, gaur, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxean



Korrika hasi da

18. Korrika Lasarte-Orian aurkezpena egingo du, Munterri-AEK euskaltegiak. Dinbi Banda batukadaren erritmoekin kalejira alai hasiko da Okendo plazatik 19:00etan.

Ekitaldian Korrikaren bideoklipa ikusi, Lasarte-Oriako kilometroen banaketa eta ibilbidea auzetuko dira.

Baina honetaz gain, hainbat herritar izango da oholtza gainean Korrikari bere babesa emanaz, Hala nola, Porrotx, Jalgune elkarte, bertsolariak, Kukuka antzerki eta dantza eskola....

Eta noski euskara ikasleei omenaldi beroa egingo zaiei.

18. Korrika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
Osteguna 21, 21:30ean

Ostegun zinea atalean, Korrikarekin bat eginez, "Agur esatea" filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro.



JALGI KAFE-ANTZOKIA
Martxoaren 18tik 31era

Aurreko Korrika lasterketako argazki erakusketa ikusgai izango da. Korrika kulturalaren barruan Ttakun K.E.-k antolatutako ekintza.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 17, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Blackie eta Kanuto" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Euskaraz.

Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 16, 19:00etan

Gero Axular Dantza Taldeak "Argizaiola"

lana aurkeztuko du. Kutxanet zerbitzuaren bitartez daude sarrerak eskuragarri. Sarrera 11 euro.

Musika

SIGLO 20

Larunbata 16, 20:00etan

Giorgio Basmattiren pop-indie doinuak entzuteko aukera izango da, Kultur Kale zikloko emanaldian.

Hitzaldia

GANBO ITURRI ELKARTEKO EGOITZA

Asteazkena 20, 19:00etatik aurrera

"Pyrenaeus" sarea hitzaldi zikloaren barruan, Xabier Barandiaran soziologok, "Zer du eta zer behar du gure nortasun kolektiboak gure herriak behar duen garapeneren motore bezala aritzeko?" hitzaldia eskainiko du.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Martxoaren 17ra arte

Ttakun kultur elkar-teak antolatzen dituen udalekuek "Duda? Euskaraz Uda!" argazki erakusketa ikusgai dago.



Astigarraga

Liburu aurkezpena

UDALETXEA

Asteazkena 20, 19:30ean

Astigarraga Zero Zaborrek antolatuta Iñaki Petxarroman herritarren "Su haietatik, Ke hauek" liburuaren aurkezpena.

Usurbil

Musika

SUTEGI KULTUR-ETXEA

Ostirala 15, 19:00etan

IX. Soinurbil Musika Astearen barruan, Erretereria musikaleko Jazz Konboa eta Xafol Klake taldea.

Herritarren txokoa

Igerilekua itxita bihar arratsaldean

Martxoaren 16an, larunbata, arratsaldean Lasarte-Oriako Udal kiroldagiko igerilekua erabiltzaileentzat itxita izango da txapelketa dela eta.

Kirol instalazioetako abonatuak Andoain, 943 300 147, eta Usurbilgo, 943 372 498, igerilekuak erabiltzeko aukera izango dute.

Maria Auxiliadoraren omenezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da martxoaren 22an, ostirala, arratsaldeko 17:00etan.

Margo eta Marrazki klaserik ez ostiral santuan

Lasarte-Oria bizilagun elkar-teak antolatzen dituen Margo eta marrazki klaserik ez da egingo martxoaren 29an, ostiral santua Manuel Lekuona kultur-etxea itxia dagoelako.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, ezkontza eraztuna, bi ordulari, zortzi betaurre-

ko graduatu, patinete bat, euritako anorak bat, lau mugikor eta haur baten berokia.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiak eskatzen zaie Udaltzainek Bulegora hurbil daitezela, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Uztaro kooperatiba

Badira urte batzuk Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarte lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat ateak zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uzta-rolasarteoria@hotmail.com helbidetan.



Baionara autobusa

Munterri-AEK-k autobusa antolatu du Baionara joan eta Korrika 18-ko amaiera ikusteko. Jalgi ondotik aterako da 9:30ean eta 21:00etan aterako de Baionatik Lasarte-Oriara.

Izen ematea, Ilargi, Jalgi eta Munterri AEK euskaltegian izango da eta 10 euro ordaindu behar dira. Zerrendan izen-emateko azken eguna, martxoaren 21a.

Korrika laguntzaile txartelak

Korrika 18-ari babesa emateko laguntzaile txartelak Jalgi Kafantzokia, Artizar taberna, Ilargi taberna eta Munterri-AEK-n daude salgai. 12 euro balio duen txartela erosiaz, laguntzaile direla adierazten duen pina eta Euskal Herriko ehunka komertzioetan beherapekin eskuratuko dituzte herritarrek.

Korrika 18-ko arropa salgai

Korrika 18-aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzerian salgai dago.



Informazio gehiago eta argazki galeriak
txintxarri.info web orrialdean.
Jarrai gaitzazu ere [facebook](https://www.facebook.com/txintxarri) eta [twitter](https://twitter.com/txintxarri) kontuetan.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Jesus Zaballoz Lasarte-Oriako PSE-EE burua

"Ez naiz Madrilen ikusten"

■ Eusko Legebiltzarreko eta udaletxeko lana uztartuko ditu aurrerantzean Zaballosek

Jesus Zaballoz Lasarte-Oriako PSE-EEko burua da egun. Zinegotzi lanarekin uztartuta, Patxi Lopezen Jaurilaritzan lanean aritu zen Iñaki Arriolarekin sailean. Lopezek berak eskatu zion PSE-EEko zuzendaritzako kide izateko eta atzotik Gasteizen legebiltzarkidea da. Lasarte-Oriako lanean jarraitzeko asmoa duela dio 2015ean alkategai izan nahi duela aurreratu.

Maidar AZURMENDI

A na Urchuegiaren alkateza luzearen ostean hartu zion Jesus Zaballosek lekukoa. PSE-EEko zinegotzi gazteak ia bi urtez izan zen alkate. Patxi Lopezen lehendakariarekin batera, Jaurilaritzan Etxebizitza, Herri lan eta Garraio sailean aritu zen Iñaki Arriolarekin. Abenduan amaitu zuen lana Gasteizen baina bueltan da ostegunetik. Arriolarekin ordezkoa da Eusko Legebiltzarrean. Horretaz gain, PSE-EEko zuzendaritzako kide izendatu dute azken kongresuan.

Nolako izan zen aldaketa alkatezatik Jaurilaritzara?

Iñaki Arriolarekin egon nintzen lanean Jaurilaritzan. Lan aldetik oso desberdina izan zen, pasa nintzen alkatezain, herritararekin harreman zuzenean lan egitea, departamentu jakin batean lan egitea.

Nire lana bitartekari parlamentariorena zen hau da, legebiltzara eta departamentuaren arteko lotura egitea egokitzen zitzaizkidan.

Oso denbora gutxian PSE-EEko zuzendaritzako kide izendatu zaituzte eta orain legebiltzarkide...

Iñaki Arriolarekin lekua hartzen dut bai. Legebiltzarrean egongo nintzela ez nuen espero. Arriolarekin lanean nengoela, egun batean bere bulegora deitu ninduen. Esan zidan Gipuzkoako zerrenda burutzen ari zela eta gustatuko litzaiokeela ni seigarren joatea. Aukera bat iruditzen zitzaizkidan eta baiezkoa eman nion asko pentsatu gabe. Orain berak kargua uzten duenez, ni naiz hurrengoa zerrendan.

Patxi Lopezek zuzendaritzan egoteko proposamena egin zidan Kongresoan bertan eta onartzea erabaki nuen, ohore bat da. Alderdian lanerako eta aipatzeko gogoia daukat.

Aldaketa asko denbora gutxian...

30 urte ditut eta agian badirudi azkar izan dela dena, alkateza, PSE-EEko zuzendaritza, legebiltzarkide... baina hamar urte daramatzat alderdian.

Ikasten ari nintzela afiliatu nintzen, karrera amaitzeko asignatura bat gelditzen zitzaizkidan, Miguel Buenen aholkulari izateko proposamena egin zidaten. Nik lehenengo ezetz esan nuen, hain zuzen nire ikasketak bukatzea zelako helburua. Alderdiak pentsatzeko eskatu eta malgutasuna eskaini zidan ikasketekin jarraitzeko. Azkenean baiezkoa eman nien. Esan behar dut beti izan dela alderdia nirekin kontatu nahi izan duena.

JSE-Egaz-eko burua izan nintzen. Ondoren proposatu zitzaizkidan herri bateko zerrendan sartzea, Anak esan zuen Lasarte-Oriako nahi ninduela eta laugarren sartu nintzen. Anarekin zinegotzi izan nintzen orduan bai liberatuta, beste lana utzita. Alderdiak eta Anak berak nahi izan ninduten alkatezarako ondoren.

Alkate gazteenetako bat izan zinen eta orain ere parlamentariaren artean gazteenetako. Hasi zinenean espero zenuen?

Gaztetasuna aipatzen duzu eta bai egia da. Nik gauza asko utzi behar izan ditut egin gabe politikan jarduteagatik. Zinegotzi izanda denbora gehiago neukan lagunekin gelditzeko, gimnasiora joateko... alkate izanda hori aldatu zen guztiz asteburuetan ere agenda bete neukan eta ia 24 orduak eskaintzen nizkion lanari. Hala ere, nire herriko alkate izatea asko gustatu zitzaizkidan, gehien gustatu zaizkidan lana izan da.

Lasarte-Oriako herritarrek nahi badute, 2015ean alkatez berreskuratzeko da nire nahia, asmoa daukat aurkezteko. Egia da 30 urterekin kargu ezberdinetan egoteko aukera izan dudala, baina lan asko ere egin dut eta alderdiak lan hori ikusi du.

Egun politikariak nahiko gaizki ikusita daude. Honek aurrean zer esango zenuke?

Orain politika egitea oso gaizki ikusita dago bai. Garai honetan alderdiek zerrendak jende prestatuarekin, formazio aldetik eta lanerako gaitasuna dutenekin osatu behar dira.

Horregatik zure formazioa



Jesus Zaballoz herriko PSE-EEren egoitzan.

osatzin jarraitu duzu?

Politikan egonda ere nire ikasketekin jarraitzea erabaki dut beti. Ez nekien zinegotzi, alkate lana gustatuko zitzaizkidan horregatik nire prestakuntza ez dut inoiz baztertu, kurrikuluma eguneratuta eduki nahi dut. Zinegotzi nintzenean master bat egin nuen, ondoren alkate nintzela gradu ondoko bat eta beste bat gainditu dit Eusko Jaurilaritzan lanean egon naizen denboran. Kargu hauek denbora mugatu baterako dira eta hori garbi izan behar da. Nire kasuan Jaurilaritzatik atera eta enpresa munduan lana zegoen begiratzin hasi nintzen. Ez nekien alderdiak zer bait eskainiko zidan.

Egungo politikoei hau da argi izan behar dutena nire ustez, prestatzen jarraitu behar da eta ezin da lasaitu kargu batean. PSE ez da enpresa bat.

Euskaraz gutxitan entzuten zaitugu...

Orain euskararekin ari naiz, euskaltegia nabil. Ulertu eta idazteko moldatzen naiz baina oraindik hitz egiteko pausua ematea asko kostatzen zait eta hori lantzen ari naiz bereziki. Oso perfektionista naiz eta hori da oztipo nagusia euskararekin. Hanka sartzeari beldurra diot, ez diot akatsa nire buruari onartzen eta hor dago gaituzte beharrezkoa.

Politikan zein helburu jarri dizkiozu zure buruari? Madrilen ikusten zara?

Alkateza esan bezala asko gustatu zitzaizkidan. Goizetan udaletxeko teknikoekin biltzen nintzen eta arratsaldeetan herritarrekin elkartzeko ahalegina egiten nuen, elkarteekin. Asko gustatzen zitzaizkidan bereiki hitz egitea. Zure erabakien ondorioak ikusten dituzu, herritarrek esaten dizute zer da gaizki egin duzuna etab. Legebiltzarkide izanda, harreman hori izango dut berri.

Madrilen ez naiz ikusten. Asko gustatzen zait hiria, lagunak ditut han eta asteburu askotan joaten naiz. Esan bezala nire helburua 2015ean alkatezara aurkeztea da eta herritarrek hala erabakiko balute, nire herriko alkate izan. Kasu horretan, gainera baldintza bezala jarri dut, legebiltzara utziko nuke.

Momentu gogorrena zein izan da politikan sartu zinenetik?

Udaletxean nengoela momentu gogorrena Isaias Carrascoren hilketa izan zen. Iñakirekin nengoan Froilanen bulegoa izandakoan bilduta eta mezu bat bidali zioten esanez gureta bat hil zutela Arrasaten, izenik ez genekien. Burura alderdiko ezagun guztiak etorri zitzaizkidan eta Arrasatera atera ginen berehala. Oso gogorra izan zen.

Mehatxatuta sentitu zara urte hauetan?

Egia da ETaren hilketa bortitzearen garaia ez dudala politikari

bezala bizi. Nire kasuan T4ko atentatuak su etena bertan behera utzi zuen objektibo izatera pasa nintzela konturatu nintzen. Trenean nengoan Donostiara bidean alderdiaren egoitzan bilera neukalako, dagoeneko politikan nintzen eta ez nuen eskoltarik.

Egun horretan ondo gogoratzen dut nola egoitzara bidean semaforo guztietan gelditu eta atzera begiratzin joan nintzen. Orduan bai nire bizitza aldatu zen. Orduetegi aldatu, ibilbideak moldatu, publikoa zen herriko zerrendan laugarren nintzela eta Batzar Nagusitarako seigarren.

Uste asko dira bizkartzainekin...

Nire etxean horregatik, beldurragatik, oso gaizki hartu zuten politikan sartzearen erabakia.

Bizkartzainak jarri zitzaizkidan, asko nabaritu nuen aldaketa, nire amak ez zuen nirekin joan nahi. Agian medikura joan behar ginen eta bera autobusean joaten zen eta ni kotxean bizkartzainekin. Arrebak berdina egiten zidan.

Orain segurtasun sailetik esan digute kenduko dizkigutela, nik aspaldi eskatu nuen. Nire ilobengatik nahi dut honekin bukatu. Orain arte arrebak osabaren lagunak zirela esan die baina zaharrenak galdetzen zuen "baina onak dira?" eta ez dut nahi bereiki egoera honen jabe izatea.

Leku askotara joaterik ez dut izan, oso mugatua sentitu naiz batzuetan. Askoz lasaia bizi naiz orain baina benetako askatasuna sentitzeko gogoia daukat.

Egungo egoeraz zer espero duzu?

Esan nahi dut, aipatutakoaz gain, zorteko sentitzen naizela, nire ibilbidean mehatxurik ez dudalako jaso, ez didate lehergailurik jarri, etab. Hala ere nire kideengandik, Froilanekin ez nuen lanik egin, baina bere alarguna, semeekin hitz egiten dut eta eurek duten mina nik ere nolabait sentitzen dut. Asko dira eta zaila da gaituzte beharrezko jarraitzea, hitzak...

Hala ere, Euskadin elkarbizitza baketsu bat nahi badugu denek egin beharko dugu ahalegina bide horretan aurrera pausak emateko. Oso gogorra da eta zaila biktimak dauden neurrian baina elkarbizitza hori benetan denek nahi badugu lan egin beharko dugu lortzeko.